

Andoaingo Udalak eta hiru ikastetxeek Eskola Kirolaren eredu bateratuaren aldeko Herri Ituna sinatu dute

Atzo arratsaldean, arratsaldeko 18:00etan, Udalbatza aretoan, Andoaingo Udalak eta herriko Lehen Hezkuntzako hiru ikastetxeek –Aita Larramendi Ikastola, La Salle Berrozpe eta Ondarreta Herri Eskola– ANDOAINGO ESKOLA KIROLA EREDU BATERATUAREN ALDEKO HERRI ITUNA sinatu zuten.

Sinadura ekitaldian, ondoren, bertaratu ziren beste alderdi politikoetako eta herriko kirol elkarteetako ordezkariak ere beren atxikimendua adierazi eta dokumentua sinatu zuten.

Herri itunaren edukia

Andoaingo Udala eta herriko hiru hezkuntza zentroak –Aita Larramendi Ikastola, La Salle Berrozpe eta Ondarreta Herri Eskola– elkarlanean ari dira Eskola Kirolaren eredu bateratu, hezitzaile, inklusibo eta komunitarioa eraikitzen.

Eredu berri honek Eskola Kirola hezkuntza-prozesuaren parte integrala dela aitortzen du, eta haur eta gazteen garapen pertsonala, soziala eta emozionala jarduera fisikoaren eta kirolaren bidez sustatzea du helburu.

Proiektu hau Eusko Jaurlaritzaren 8/2022 eta 2/2023 Legeetan oinarritzen da, eta marko juridiko eta pedagogiko sendo baten bitartez gauzatzen da.

Udalaren eta ikastetxeen arteko konpromisoa

Andoaingo Udalak eta hiru ikastetxeek honako konpromiso instituzionala hartzen dute:

- Eredu bateratua garatzea, Andoaingo Eskola Kirola proiektu hezitzaile komun gisa ulertuz.
- Euskara ardatz komunikatiboa izatea.

- Koordinazio iraunkorra bermatzea Udalaren, ikastetxeen eta hezkuntza-komunitatearen artean.
- Eskola Kirolaren antolaketa eta programazioa Hezkuntza Planetan txertatzea.
- Udal baliabideak eta azpiegiturak eskola kirolaren zerbitzura jartzea.
- Profesionaltasuna eta prestakuntza sustatzea.
- Inklusioa eta aukera berdintasuna sustatzea.
- Genero-berdintasuna eta diskriminazioaren prebentzioa bermatzea.
- Bizimodu aktibo eta osasungarriak sustatzea.
- Hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzea bultzatzea.

Printzipio gidariak

- Euskara ardatz komunikatiboa izatea.
- Hezkuntza osoa eta balioetan oinarritua.
- Aukera berdintasuna eta ekitatea.
- Aniztasunean oinarritutako esperientziak.
- Bizimodu osasungarria eta ongizatea.
- Parte-hartze komunitarioa eta elkarlana.

Etengabeko lankidetzeta eta jarraipena

Udalak eta hiru ikastetxeek adierazten dute prest daudela Eskola Kirolaren eredu bateratu hau elkarrekin garatzeko, etengabeko elkarrizketa, ebaluazio eta egokitzapen prozesuen bidez. Konpromiso hau denboran iraunkorra eta egituratua izango da, herriaren hezkuntza komunitate osoaren parte-hartzearekin.

Ekitaldiko bateratuak

Alderdi politikoen aldetik:

- Andoni Alvarez, alkatea.
- Aritz Alkain, PSEE-EE.
- Txitxu Ruiz, EAJ-PNV.
- Pepe Iparraguirre, Elkarrekin Podemos.

Ikastetxeen aldetik:

- Maite Petricorena (Ondarreta Herri Eskola)
- Imanol Chorro (Aita Larramendi Ikastola)
- Lorena Vicente (La Salle-Berrozpe)

Herriko kirol elkarteen aldetik:

- Angel Gonzalo (Ganbara saskibaloia taldea)
 - Jimi Brosa (S.D. Euskalduna)
 - Txaro Sanchez (Kabutoken Kenpo-Kai elkarte)
 - Ainara Abrego (Leizaran eskubaloia KK)
 - Xabat Amilibia (Gazteleku pikota elkarte)
 - Susana Rodriguez (Oskarbi erritmika elkarte)
- Beren atxikimendua adierazi zuten, baina ez ziren bertaratu:
- Andoaingo Txirrindulari Eskola
 - Agustin de Leiza xake elkarte

Andoain, 2026ko otsailak 20

El Ayuntamiento de Andoain y los tres centros educativos firman el Pacto Local por un modelo unificado de Deporte Escolar

Ayer a las 18:00 horas, en el Salón de Plenos del Ayuntamiento, el Ayuntamiento de Andoain y los tres centros de Educación Primaria del municipio –Aita Larramendi Ikastola, La Salle Berrozpe y Ondarreta Herri Eskola– firmaron el PACTO LOCAL A FAVOR DEL MODELO UNIFICADO DE DEPORTE ESCOLAR DE ANDOAIN.

Tras la firma institucional, representantes de otros partidos políticos y de clubes deportivos del municipio firmaron también su adhesión al acuerdo.

Contenido del pacto

El Ayuntamiento de Andoain y los tres centros educativos del municipio trabajan conjuntamente en la construcción de un modelo unificado de Deporte Escolar, de carácter educativo, inclusivo y comunitario.

Este nuevo modelo reconoce el Deporte Escolar como parte integral del proceso educativo y tiene como objetivo fomentar el desarrollo personal, social y emocional de niños, niñas y jóvenes a través de la actividad física y el deporte.

El proyecto se fundamenta en las Leyes 8/2022 y 2/2023 del Gobierno Vasco, desarrollándose dentro de un marco jurídico y pedagógico sólido.

Compromiso institucional

El Ayuntamiento de Andoain y los tres centros educativos adquieren los siguientes compromisos:

- Desarrollar un modelo unificado, entendiendo el Deporte Escolar de Andoain como un proyecto educativo común.
- Establecer el euskera como eje comunicativo.
- Garantizar una coordinación permanente entre Ayuntamiento, centros educativos y comunidad educativa.

- Integrar la organización y programación del Deporte Escolar en los Planes Educativos.
- Poner los recursos e infraestructuras municipales al servicio del deporte escolar.
- Fomentar la profesionalización y la formación.
- Impulsar la inclusión y la igualdad de oportunidades.
- Garantizar la igualdad de género y la prevención de la discriminación.
- Promover estilos de vida activos y saludables.
- Fomentar la participación de toda la comunidad educativa.

Principios rectores

- El euskera como eje comunicativo.
- Una educación integral basada en valores.
- Igualdad de oportunidades y equidad.
- Experiencias basadas en la diversidad.
- Vida saludable y bienestar.
- Participación comunitaria y colaboración.

Colaboración y seguimiento permanente

El Ayuntamiento y los tres centros educativos manifiestan su disposición a desarrollar conjuntamente este modelo unificado de Deporte Escolar, mediante procesos continuos de diálogo, evaluación y adaptación.

Este compromiso será estructurado y sostenido en el tiempo, contando con la participación de toda la comunidad educativa del municipio.

Personas asistentes al acto

En representación de los partidos políticos:

- Andoni Alvarez, alkatea.
- Aritz Alkain, PSEE-EE.
- Txitxu Ruiz, EAJ-PNV.
- Pepe Iparraguirre, Elkarrekin Podemos.

En representación de los centros educativos:

- Maite Petricorena (Ondarreta Herri Eskola)
- Imanol Chorro (Aita Larramendi Ikastola)
- Lorena Vicente (La Salle-Berrozpe)

En representación de los clubes deportivos del municipio:

- Angel Gonzalo (Ganbara saskibaloia taldea)
- Jimi Brosa (S.D. Euskalduna)
- Txaro Sanchez (Kabutoken Kenpo-Kai elkarte)
- Ainara Abrego (Leizaran eskubaloia KK)
- Xabat Amilibia (Gazteleku pikota elkarte)
- Susana Rodriguez (Oskarbi erritmika elkarte)

Expresaron su adhesión al acuerdo, aunque no pudieron asistir al acto:

- Andoaingo Txirrindulari Eskola
- Agustin de Leiza xake elkarte

Andoain, 20 de febrero de 2026